



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 38
Urtea/Año 2017
Ekaina/Junio

HILEKO JARDUERAK

Ekainaren 4, 11, 18 eta 25ean. 19:30ean: "Andrés Isasi" Musika Eskolako jazz-taldeak eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

Ekainaren 7an. 18:30ean: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 8an. 18:00etan: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 9an. 18:00etan: Musika Eskolako piano eta perkusio-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 12an. 17:00etan: Musika Eskolako klarinete-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 12an. 18:30ean: Musika Eskolako flauta-ikasleen emanaldia. Punta Begoñako galerietan.

Ekainaren 13an. 15:00etan: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 13an. 18:30ean: Musika Eskolako bertako musika-tresnen ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 14an. 18:30ean: Musika Eskolako musikoterapia-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 15 eta 20an. Zehaztu gabeko ordutegian: Musika Eskolako maila-amaierako eta irakaskuntza indartuko ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Ekainaren 21ean. 18:30ean: Musika Eskolako ikasleen Ikasturte-amaierako emanaldia. Algortako San Nikolas eta Biotz Alai plazetan.

BA AL ZENEKIEN?

Musika entzuteak mina arintzen laguntzen du.

Egindako ikerketen arabera, musika entzutearen onuretako bat da artrosia eta artritis erreumatoidea bezalako gaixotasun mingarrien min kronikoa %21 eraino arindu dezakeela, eta depresioa %25 eraino.

Terapia musikala gero eta gehiago erabiltzen da ospitaleetan erditzean medikazioaren beharra gutxitzeko, ebakuntza-ondoko mina arintzeko eta ebakuntzetan anesthesiaren erabileraren osagarri gisa. Hau guztia posiblea da musikak kontrol-sentsazioa ematen duelako, minari aurre egiteko gorputzean endorfinen askapena errazturik. Gainera, musika geldoak arnasketa eta bihotz-erritmoa gutxitzen laguntzen du, larritasun-sentsazioa desagertaraziz.

AGUR IKASTURTEARI

2016-17 ikasturtea amaitzeaz dago. Gure eskola sendotuz goaz, bai Areetan bai eta Algortan ere. Zuengandik hurbilago egon ahal izateaz harro gaude, batez ere egunez egun haziz doan zuen ibilbide eta heldutasun musikala ikusten dugulako. Eskerrik asko zuen konfiantzagarri.

Askok zarete gurekin matrikula berritu duzuenak. Ekainean zehar zuekin harremanetan jarriko gara ikasturte berrirako ordutegia adosteko.

Beste batzuk ez duzue datorren ikasturtean gurekin jarraituko. Espero dugu zuen esperientzia "Andrés Isasi" Musika Eskolan positiboa izatea. Badaukizue hau zuen etxea dela, nahi izanez gero aurrerago musika-ikasketak jarraitzeko.

Espero dugu antolatu ditugun jarduera desberdinak zuen gustukoak izatea: Musika Eskolan bertan edo kanpoan zuek protagonista nagusiak izanik emandako errezitaldiak, Bilboko Musikaaldia, Neguko Bidaiak, solasaldi musikala Liburutegian, kontzertu didaktikoak, Bilboko Orkestra Sinfonikoaren kontzertuetara joan ahal izatea... eta abar luze bat; ziur burura datozkizuela ikasturte honen ibilbidea erreparatzerakoan.

Zenbait izapide ere erraztu nahi izan dizkizuegu web orriaren bitartez. Datorren ikasturtean gure zerbitzuak hobetzen jarraituko dugu teknologia berriak medio.

Hilabete honetan, ikasturtea amaitzeko Eskolako espezialitate desberdinetako errezitaldi askorekin gozatzeko aukera duzue. Ez itzazue gal.

Ondo pasa udan eta aisialdian. Gogoratu musika beti dela bidaia-lagun ona. Ez ezazue etxean ahaztu!

Hileko egutegia

Ekaina

al	ar	az	og	or	la	ig	
			1	2	3	4	
5	6	7	8	9	10	11	
12	13	14	15	16	17	18	■ Jai-egunak
19	20	21	22	23	24	25	■ Jarduerak eskolan
26	27	28	29	30			■ Jarduerak jai-egunetan